

TITULARRAK	ADIERAZLEAK		
	Azken datua	Δ Urte artean (%) <small>*aurreko aldia</small>	Azken datuaren data
<ul style="list-style-type: none"> Guztira, 21.007 langabe erregistratu dira martxoan. Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak behera egin du aurreko hilabetearekin alderatuta (-% 0,3), eta 199.630 pertsona izan dira. Erregistratutako kontratuak -% 10,8 egin dute behera urte batetik bestera, eta kontratuen % 92,6 zerbitzuen sektorekoak izan dira. Saltoki handiei eta elikagaien kateei dagokienez, martxoko salmentek urte arteko -% 2,0ko beherakada nominala izan dute. Bilboko turismo-jarduerak, hotel-establezimenduak, apartamentuak eta turismo-aterpetxeak kontuan hartuta, gora egin du martxoan urte arteko kopuruetan, bai gaualdietan (% 2,9), bai bidaiariaren sarreretan (% 0,4). 250 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira Bilbon, eta horrek 2025eko lehenengo hiruhilekoan baino -% 3,8 gutxiago izatea eragin du. Desegiteek -% 4,3 egin dute behera. 2025eko hirugarren hiruhilekoan, etxebizitzaren alokairua urte arteko % 4,1 eta hiruhileko arteko % 4,4 garestitu da, hilean 984,1 eurora arte. Bilboko aireportuak irailean 561.161 bidaiari erregistratu ditu martxoan, duela urtebete baino 30.387 gehiago. Bilboko Portuak urte arteko % 8,5eko igoera izan du. 	<p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 199.630</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 21.007</p> <p>Erregistratutako kontratuak 10.301</p> <p>Merkataritza</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria) 97,5</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiariaren sarrera (kop.) 110.439</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 217.552</p> <p>Batez besteko egonaldia (egunetan) 1,96</p> <p>Ekonomia eta enpresak</p> <p>Sortutako merkataritza-sozietateak 250</p> <p>Desegindako merkataritza-sozietateak 133</p> <p>Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete) 984,1</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiariaren aireko garraioa (kop.) 561.161</p> <p>Salgaien itsas-garraioa (milioi tona) 3,1</p>	<p>-0,3*</p> <p>0,3*</p> <p>-10,8</p> <p>-2,0</p> <p>0,4</p> <p>2,9</p> <p>2,60</p> <p>-3,8</p> <p>-4,3</p> <p>4,1</p> <p>5,7</p> <p>8,5</p>	<p>mar.</p> <p>mar.</p> <p>mar.</p> <p>mar.</p> <p>mar.</p> <p>mar.</p> <p>mar.</p> <p>2026,1HH</p> <p>2026,1HH</p> <p>3T25</p> <p>mar.</p> <p>mar.</p>

DATU BAT

% 5,7

Aireportuko bidaiariak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Martxoan 60 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko % 0,3 gehiago, eta 21.007 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa igo egin da gizonen eta emakumeen artean, % 0,4 eta % 0,2, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 32 gizonetako langabe gehiago eta 28 emakumezko langabe gehiago zeuden.

25-44 urtekoen artean soilik jaitsi da langabezia (-% 0,1 eta 7 langabe gutxiago). Gora egin du gazteen artean (+% 2,7 eta 53 langabe gehiago) eta 45 urteko eta gehiagoko adin-tartean (+% 0,1 eta 14 langabe gehiago).

Sektoreka, zerbitzuetan 17 langabe gehiago daude (% 0,1), Industrian 5 gehiago (% 0,4), eraikuntzan 3 gehiago (% 0,2), eta lehen sektorean 11 gutxiago (-% 2,9). Igo egin dira lehen lanaren bila dabilenak (% 1,4 eta 46 pertsona gehiago).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak -% 0,3 egin du behera aurreko hilaren aldean. Bartzelonak langabeziari eutsi dio otsailarekin alderatuta; gainerako hiriburuetan langabeen kopuruak behera egin du.

Euskal hiriburuen multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa -% 0,3 jaitsi da. Igo egin da Gasteizen (% 0,5); jaitsi Donostian eta Iruñean (-% 0,5 eta -% 1,3, hurrenez hurren).

Langabeziak gora egin du EAEn (% 0,2) hilabete artean. Lurraldeka: Bizkaian eta Araban egin du behera, % 0,2 eta % 0,3 hurrenez hurren, eta Gipuzkoan berdin mantendu da (% 0,0).

Afiliatuak

Bilboko enpresetan 199.630 afiliatu¹ zeuden martxo amaieran, hau da, -% 0,3ko jaitsiera izan zen eta 609 enplegu gutxitu ziren otsailarekin alderatuta.

Erregimenen arabera, Langile Autonomoen Berezia bakarrik hazi da, 14 afiliazio gehiago (+% 0,1). Orokorrak 596 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean, eta Etxeko langileenak 17 (-% 0,3 bi kasuetan); bereziek (Nekazaritza eta Itsasoa) 10 gutxiago izan dituzte.

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Martxoa	21.007 pertsona
	% 0,3 ▲
Emakumeak	% 0,2 ▲
Gizonak	% 0,4 ▲

Benchmarkina

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 0,3 ▲
G-5	% 0,3 ▼
G-3	% 0,3 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, arabideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Martxoa	199.630 pertsona
	% 0,3 ▼
Araubide orokorra	% 0,3 ▼
Autonomoak	% 0,1 ▲
Etxeko langileak	% 0,3 ▼
Bestelakoak	% 1,5 ▼

¹ 2026ko otsaileko afiliazio-datua Gizarte Segurantzak zuzendu du, eta 200.239 afiliatu geratu dira Bilbon.

Sektoreka, Zerbitzuetan 696 afiliatu gutxiago daude (-% 0,4) eta Industrian 30 gutxiago (-% 0,4). Aldiz, Eraikuntzan 45 gehiago (+% 0,5) eta Lehen Sektorean 72 gehiago (+% 31,4).

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmenak dira gizarte-zerbitzuetako, informazioa eta komunikazioetako eta ostatuaren adarretako igoerak (126, 85, 55 gehiago, hurrenez hurren). Enpleguak, besteak beste, behera egin du Hezkuntzaren, Administrazio-jardueren, Handizkako merkataritzaren eta Jarduera profesional, zientifikoak eta teknikoen adarretan (-327, -300, -101 eta -83, ordena horretan).

Oharra: EJSN-2025 berria dela eta, aldaketa horrekin jarduera batzuen sailkapena aldatu egin da, eta horrek esan nahi du ezin direla alderatu aurreko kodetzearekin. Hori dela eta, ezingo da urte arteko aldaketarik sartu 2027ko urtarrileko oharrera arte.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,1eko jaitsiera izan du aurreko hilaren aldean. Madrilen eta Bartzelonan afiliazioa -% 0,1 eta -% 0,4 murriztu da, hurrenez hurren. Taldeko gainerako hiriburuetan igo egin da enplegua: Sevillak izan du igoerarik handiena (% 0,6) eta Zaragozak txikiena (% 0,1).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, -% 0,1 jaitsi da. Gasteizen -% 0,2 murriztu da, eta Donostian eta Iruñean mantendu egin da.

EAEen, oro har, afiliatuak -% 0,1 jaitsi dira hilabete artean. Lurraldeka, Araban eta Bizkaian afiliazioak jaitsi egin dira (-% 0,1, bi kasuetan), eta Gipuzkoan mantendu egin dira aurreko hilaren aldean (% 0,0).

Kontratuak

Martxoan 10.301 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtetik urtera -% 10,8 eta 1.245 kontratu gutxiago. Urtetik urtera behera egin dute gizonei eta emakumeei egindako kontratuak: 701 eta 544 gutxiago, hurrenez hurren.

Kontratuak adin-tarte guztietan gutxiagotu dira: 45 urte eta gehiagokoen taldean -% 17,8 (619 kontratu gutxiago); 25-44 urtekoen taldean -% 9,9 (563 gutxiago); eta gazteenen taldean -% 2,6 (63 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 49,5 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.098 kontratu) % 27,7 berriz, 45 urtetik gorakoei (2.853) eta gainerako % 22,8, ordea, gazteenei (2.350).

Sektoreka, kontratuak jaitsi egin dira Zerbitzuetan (-% 11,2 eta 1.198 kontratu gutxiago), Eraikuntzan (-% 9,6 eta 32 gutxiago), Industrian (-% 2,0 eta 9 gutxiago) eta Lehen sektorean, 6 gutxiagorekin. Zerbitzuetan, igoera absolutu esanguratsuenak Etxeko langileak enplegatzen dituzten etxebizitzetan (168 gehiago), Saltokietan (107 gehiago) eta Artistiko eta aisialdikoan (84 gehiago) izan dira. Informazioa eta komunikazioak (-929) eta Osasun-jarduerak eta Gizarte-zerbitzuak (-124) dira urte arteko jaitsiera handienak izan dituzten adarrak.

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Martxoan	199.630 pertsona
	% 0,3 ▼
Zerbitzuak	% 0,4 ▼
Eraikuntza	% 0,5 ▲
Industria	% 0,4 ▼
Lehenengo Sektorea	% 31,4 ▲

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 0,3 ▼
G-5	% 0,1 ▼
G-3	% 0,1 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Martxoan	10.301 pertsona
	% 10,8 ▼
Emakumeak	% 8,6 ▼
Gizonak	% 13,5 ▼
Lehenengo Sektorea	% 50,0 ▼
Industria	% 2,0 ▼
Eraikuntza	% 9,6 ▼
Zerbitzuak	% 11,2 ▼
Kontratatutako pertsonak	% 7,4 ▼

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 71,1 izan dira martxoan. Mugagabeek % 11,6 egin dute gora urtetik urtera. 7.656 pertsona kontratatu dira, -%7,4 gutxiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,35 kontratu.

Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta

Txosten hau ixteko datan, EINek ez du eman Bilborako 2026ko lehen hiruhilekoari buruzko daturik.

MERKATARITZA

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, martxoan -% 2,0 egin dute behera urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,4 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek behera egin dute (-% 0,7) 2025eko martxoarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek -% 4,2 egin dute behera.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko -% 0,5eko atzerakada izan du.

Lurreldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Araban (+% 0,8), eta Gipuzkoan (+% 0,6). EAEn, orokorrean, -% 0,8 egin dute behera.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Martxoa	97,5
Salmenten indizea	% 2,0 ▼
- Elikadura	% 0,7 ▼
- Gainerako produktuak	% 4,2 ▼
Lanean ari diren langileak	% 0,5 ▼

TURISMOA

Oro har, turismo-establezimenduetan (hotelak, apartamentu eta ostatu turistikoak), martxoan 110.439 sarrera eta 217.552 gualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera +% 0,4 eta +% 2,9, hurrenez hurren). Batez besteko egonaldia 1,97koa izan da, 2025eko martxokoa (1,92) baino handiagoa.

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 173.962 ostatu-gau erregistratu dira martxoan, hau da, -% 1,6ko jaitsiera egon da urtetik urtera (2.877 ostatu-gau gutxiago).

Bidaiarien sarrerak ere behera egin du, -% 2,0. Urtetik urtera jaitsi egin da Estatuko eta atzerriko bidaiarien presentzia, eta bi kasuetan -% 2,0 jaitsi da. Estatukoak martxoan hiriko bisitarien % 56 dira, eta atzerritarrak gainerako % 44a.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 25), gero Kataluniakoak (% 14,5), EAEkoak (% 13,8) eta Andaluziakoak (% 7,2). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 12,1), Alemania (% 10,9), Erresuma Batua (% 10,1) eta AEB (% 9,5).

Bidaiarien batez besteko egonaldia 1,89 gualdikoa da (iazko martxoan 1,88koa).

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun datuen arabera, urtetik urtera batz besteko tarifak gora egin du, 104,1 euroraino, baita gela eskuragarriko diru-sarrerak ere (69,7 euro).

Apartamentu turistikoen establezimenduek² 10.794 sarrera erregistratu dituzte guztira martxoan, hau da, % 26,3 gehiago eta 28.304 gualdi gehiago, eta 2025eko martxoan baino % 33,5 gehiago.

Martxoan, 7.484 sarrera eta 15.286 gualdi erregistratu ziren **turismo-aterpetxeetan**³, % 0,6 eta % 15,1 gehiago urte batetik bestera, hurrenez hurren.

² Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatu ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena.

(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

³ Turismo-aterpetxeak: "Turismo-aterpetxeak" dira, ohikotasunez eta modu profesionalean, ordainsari baten truke, plaza bakoitzeko geletan ostatu-zerbitzua eskaintzen duten establezimenduak; gehienbat gela kolektiboetan edo edukiera anitzeko geletan, eta, hala badagokio, jatetxe- edo ostalaritza-zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe. Halaber, aisialdiko, hezkuntzako, kiroleko nahiz bestelako jarduerak ere eskaini ditzakete".

Establezimendu turistiko hartzaileak GUZTIRA

Urte artekoa Δ

Martxoan

Ostatu-gauak, guztizkoak	217.552 ostatu-gauak
	% 2,9 \blacktriangle
Sarrerak, guztira	110.439 sarrerak
	% 0,4 \blacktriangle
Egonaldia, batez beste	1,96 ostatu-gau/bidaiariko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Martxoan

Ostatu-gauak	173.962 ostatu-gauak
	% 1,6 \blacktriangledown
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 4,2 \blacktriangledown
	% 6,1 \blacktriangle
Bidaiarien sarrerak	92.161 sarrerak
	% 2,0 \blacktriangledown
Espainiakoak	% 2,0 \blacktriangledown
Atzerritarrak	% 2,0 \blacktriangledown

Egonaldia, batez beste 1,89 ostatu-gau/bidaiariko

Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 9,4 \blacktriangle
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 8,8 \blacktriangle

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Martxoan

Ostatu-gauak	10.794 ostatu-gauak
	% 26,3 \blacktriangle
Bidaiarien sarrerak	28.304 sarrerak
	% 33,5 \blacktriangle
Egonaldia, batez beste	2,62 ostatu-gau/bidaiariko

Turismo-aterpetxeak

Urte artekoa Δ

Martxoan

Ostatu-gauak	15.286 ostatu-gauak
	% 15,1 \blacktriangle
Bidaiarien sarrerak	7.484 sarrerak
	% 0,6 \blacktriangle
Egonaldia, batez beste	2,04 ostatu-gau/bidaiariko

Benchmarking. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da, $-1,8\%$ jaitsi da urte batetik bestera. Donostian $-3,4\%$ jaitsi dira eta Gasteizen $-0,6\%$. Iruñean bakarrik igo da, $+1,0\%$.

EAE osoan $0,9\%$ igo dira aurreko urteko martxoaren aldean. Lurraldeka, gora egin dute Bizkaian ($+2,7\%$) eta Araban ($+3,6\%$). Aldiz, Gipuzkoan, behera egin dute $-2,1\%$.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauek $3,0\%$ ko gorakada izan dute. Zaragozan izan ezik ($-3,7\%$), ostatu-gauek gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du igoerarik handiena: $15,9\%$.

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	$1,6\%$	▼
G-5	$3,0\%$	▲
G-3	$1,8\%$	▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

ENPRESAK

Merkataritza-sozietateak

2026ko lehen hiruhilekoan Bilbon 250 merkataritza-sozietate berri eratu dira. Horrek $-3,8\%$ ko jaitsiera dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (10 sozietate gutxiago datu absolutuetan).

Sektoreka, Zerbitzuetan 202 sozietate sortu dira, 2025eko lehen hiruhilekoan baino 10 gutxiago; Industrian 8 eta Lehen Sektorean 1 (4 eta 3 gutxiago, hurrenez hurren). Eraikuntzan 39 sozietate berri sortu ziren (7 gehiago).

Lehen hiruhilekoan 133 sozietate desegin dira, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino 6 gutxiago. Desegindakoetatik, $75,9\%$ Zerbitzuen sektorekoak dira, $12,0\%$ Eraikuntzakoak eta $11,3\%$ Industriakoak.

Merkataritza-sozietateak

Urte artekoa Δ

I. hiruhilekoa

Sortuak	$3,8\%$	▼
Deseginak	$4,3\%$	▼

Etxebizitzen alokairua

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako Alokairuaren Merkatuaren Estatistikak (AME) Bilboko etxebizitzaren alokairu-prezioen datuak eguneratzen ditu, 2025eko hirugarren hiruhilekoan egindako eragiketei dagozkienak. 984,13 eurotan ezarri da etxebizitzaren alokairu berrien hileko batez besteko errenta, aurreko urteko hiruhileko berean baino $4,1\%$ gehiago.

Etxebizitzaren alokairuaren batez besteko prezioa (€/hilabete)

2025eko III. hiruhilekoa	984,1 €/mes
Hiruhileko arteko Δ	$4,4\%$ ▲
Urte artekoa Δ	$4,1\%$ ▲

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 561.161 bidaiari izan ditu martxoan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 5,7 eta 30.387 bidaiari gehiago. Emaiza horiekin, gainera, martxoko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Merkataritza-operazioetan, jaitsi egin da hegaldi nazionaletako bidaiarien kopurua (3.978 bidaiari gutxiago, -% 1,3), eta igo egin dira, aldiz, nazioartekoetakoa (34.681 bidaiari gehiago, % 16,3).

Hilean operatutako hegaldiak igo egin dira, eta iritsieren eta irteeren artean 4.329 izan dira. Eta jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-% 46,9).

Metatutako datuan, 2026ko lehen hiruhilekoan 1.394.695 bidaiari erregistratu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 6,4 gehiago.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 5,0ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokionez. Aireportuen artean Sevillakoa izan da igoera handiena izan duena (% 9,0), eta Zaragozakoa, berriz, txikiena izan duena (% 3,2).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 8,3 igo da. Gasteiz % 45,4 igo da eta Iruñea % 7,4. Donostiak bakarrik egin du behera, -% 8,8.

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 3,1 milioi tonako trafikoa izan du martxoan, hau da, % 8,5 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan martxoan kudeatzen diren salgaien % 66,4 izan da, eta urte arteko % 22,5eko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 48,7 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra % 13,7 igo.

Martxoan 3.620 itsas bidaiari erregistratu dira itsas bidaia bakar batean.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik martxora, 8,3 milioi tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko aldi berean baino % 2,4 gehiago.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Martxoa	561.161 bidaiari
	% 5,7 ▲
Espainiakoak	% 1,3 ▼
Nazioartekoak	% 16,3 ▲
Salgaiak (kg)	% 46,9 ▼
Hegaldiak	% 3,1 ▲

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 5,7 ▲
G-5	% 5,0 ▲
G-3	% 8,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsasoko garraioa Martxoa

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	3,1 milioi tona.
	% 8,5 ▲
Bidaiarien garraioa	11.130 bidaiari
	% 8,6 ▼
Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)	3.620 gurutzaldiko bidaiari
	% 26,5 ▼

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua Δ	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.007	0,3*	2026ko martxoa
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	199.630	-0,3*	2026ko martxoa
Erregistratutako kontratuak (kop ^o)**	10.301	-10,8	2026ko martxoa
Biztanleria aktiboa (milaka)	178,1	1,3*	2025eko IV. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	156,6	-4,9*	2025eko IV. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	21,5	92,0*	2025eko IV. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	12,08	5,72 pp.*	2025eko IV. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	102,6	1,2*	2026ko martxoa
Afiliatuak**	19.272	-0,9*	2026ko martxoa
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	126,2	2,6	2025eko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	97,5	-2,0	2026ko martxoa
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaia-erien sarrerak	92.161	-2,0	2026ko martxoa
Ostatu-gauak	173.962	-1,6	2026ko martxoa
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaia-riak)	1,89	0,5	2026ko martxoa
Hotelen okupazio maila (%)	53,1	-1,6 p.p.	2026ko martxoa
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	69,7	8,8	2026ko martxoa
Apartamentu turistikoak			
Bidaia-erien sarrerak	10.794	26,3	2026ko martxoa
Ostatu-gauak	28.304	33,5	2026ko martxoa
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,62	5,64	2026ko martxoa
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	109,0	0,5*	2025eko IV. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	112,0	3,6	2026ko ots.
Merkataritza-sozietate berriak	250	-3,8	2026ko I. HH
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	135,5	1,4	2025eko IV. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.015,1	-2,6*	2025eko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.656,3	9,4*	2025eko IV. HH
Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete)	984,1	4,4*	2025eko III. HH
Garraioa			
Bidaia-erien aireko garraioa (kop.)	561.161	5,7	2026ko martxoa
Hegaldiak	4.329	3,1	2026ko martxoa
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	3,1	8,5	2026ko martxoa
Hiri- eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari)	137,8	9,5	2025

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak




Merkataritza-sozietate berriak



Aireportuko bidaiariak



Hoteletako ostatu-gauak (kop.)



Portuko garraioa

